


## Kultur agenda



### Ballet Biarritz-en saio irekia

Ballet Biarritz dantza taldeak saio irekia eskainiko du ostegunean, azaroak 18. Egiako Gazteszenan, 19:00etan.



### Pikor taldearen "Zapaldu marra" Gazteszenan

Pikor taldeak "Zapaldu marra" antzezlanaren taularatuko du euskaraz, ostiral eta larunbatean —azaroak 19 eta 20—. Egiako Gazteszenan, 20:00etan. Gazteak eta drogak dira antzezlanaren ardatzak. Didaktismo merke oro saihesten duen antzezlan dibertigarri honetan, gogoeta eta umorea elkarren eskutik doaz.

## Artfutura Altza Kultur etxean

Artfutura ikus-entzunezko jaialdi abangoardista Altza kultur etxean (Larratxo Pasealekua 55) egingo da, azaroaren 12tik 14a bitarte. Bertan, azkenaldion arte digitala eta teknologia berrien alorrean egindako filmak eskainiko dira. Besteak beste, Pixar ekoiztetxearen "The Incredibles" animaziozko filma aurkeztuko da. Horretaz gain, "Donostia. Animatuz" sailean, euskal animaziozko filmak emango dira euskaraz eta gaztelaniaz. Ikusgai izango diren pelikulen artean, "Kalabaza tripontzia", "Bambulo", "Glup" eta "Unibertsolariak Munduaren Ertzaren Bila" filmak daude. Sarrerak Altza Kultur etxeko leihatilan eros daitezke.



## erakusketak

- Laura Garcia Alonso artistaren "Floral" erakusketa. Gipuzkoako Argazkilari Elkartean (San Joan kalea 27), azaroaren 17a arte.
- Fernando Mikelarena, Xipri Fernandez eta Arantxa Arratibelen artelanak. Parte Zaharreko Sugar galerian (San Jeronimo 8), azaroaren 25a arte.
- Marta Cardenas pintorearen "Azken paperak" erakusketa. ArteKO galerian (Sekundino Esnaola 3), abenduaren 4a arte.
- "Jaizkibel bizirik" argazki erakusketa. Club Vasco de Camping elkartearen egoitzan (Iparragirre 8), abenduaren amaiera arte.



- "Disidentziak oro (1972-1982). Poetikak eta arte ekinbideak euskal trantsizio politikoan" erakusketa. Koldo Mitxelena Kulturuneko Ganbaran, urtarrilaren 8a arte.
- "Abangoardistak: 1925-1939" erakusketa. (Oteiza, Dali, Miro, Buñuel eta beste hainbat artisten obrak). Kursaalako Kubo aretoan (Zurriola 1), urtarrilaren 9a arte.
- Koldobika Jauregiren artelanak. Kur galerian (Zurriola 6) ikusgai, urtarrilaren 9a arte.
- "Ahalegina". Munduko bazter guztietatik etorritako hamar artisten instalazioak, bideoak, proiektzioak eta argazkiak. Koldo Mitxelena Kulturuneko erakusketa aretoan, otsailaren 5a arte.